



PASAIKO PLAZATIK DATOR NOTIZIYA ...

Doinua: Pasaiko plazatik I-A

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1993. *Xenpelar eta bere ingurua*. Auspoo. 144 or.



Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869
Errenteria, Gipuzkoa)

Pasaian (Gipuzkoan) herriko festetan, Santiago egunez, zezenak alde egin zuen plazatik eta kalean zebiltzan herritarrek susto galanta hartu zuten; asko zauritu ere bai.

Ihesi zihoala, azkenerako zezena arroketara sartu zen eta itsasora salto egin zuen.

Herriko zalapartaren berri zabaldu zuen, bertsopaper umoretsu honekin, Xenpelar bertsolariak. Hitzak moldatuta, kantuan eman zuen Mikel Laboak "Bat Hiru" diskoan (1974 Herri Gogoa).

- 1 Pasaiko plazatik dator **notizia*** zezen bat atera da jenioz* **bizia** kantatutzeroa noa bistan **ikusia** konsolatzeko triste dagoen **guzia**.
- 2 Santiago eguna Pasaian **seinale** ailegatu ez danak egin beza **galde** hasieran jendea zezenaren **alde** azkenean ez ziran arrimatu* **zale**.
- 3 Gure Pasaia beti sonatua **dago** errepin* gabe ez da urte bat **igaro** hurrengoan jarriko dituztela **nago** barrerak estu edo zezena **handiago**.
- 4 Toriletik atera zuten **lehendabizi** behi zahar bat gidaria bandera ta **guzi** harrapatzen zuena porrokatzen **hasi** azkenian plazatik kanpora **ihesi**.
- 5 Hiru komertzianta plazatik **kanpuan** fosforo* ta barkillo labana **tratuan** pareta egon arren hamar oin **altuan** fanfarroi joanak dira putzura **saltuan**.
- 6 Horiek horrela ta gehiago ere **bai** lurrean zilipurdi egin dute **lasai** ezkonberriak eta zenbat dama **galai*** zezenaren mendean ez zuten jarri **nahi**.
- 7 Arrokatik putzura sartu da **igeri** burua besterikan ez zuen **ageri** bakeroa* begira bere **zezenari** eserita jan ditu libra* ta erdi **ogi**.



notizia = berria
jenioz = jeinuz, talenduz
arrimatu = hurbildu
errepin = harrapakeria, ebasketa

fosforo = poxpolo
galai = galant
bakeroa = behizaina
libra = libera; garaiko neurria, pisuarena

